

ARGIA UZTURREN

GOI goian, zeru ertzean, eguzkiaren kabian, pago ta zelaiak, sasia, arkaitzak ta «Kornelio Txabola». (Mini-txabola benetan!) Nere aurrean, oso gertu. Uzturreko gurutze soilaor beian, leize izugarria. Giro ederrarekin itxaso urdiña ere ikusten da. Bañan gaur ez beintzat.

Egoaldi kazkarra degu. Eguzki gutxi... laño asko. Margo zime-lak. Emen ta an, zeru aundian, urdiñ puska batzuk. Goian, bai Ze-rua... beeran, zuloan, Inpernua. Nunai, ezker ta eskubi aldean, pai-saje apartak, neurtu ezin diranak. (Tontor-ibar, erri txiki ta basoak.)

Bat batean, nik ez dakit nola- terrala sartu da, azkar, azkar, oso azkar, azkarregi eta terralarekin, aize zakarra, otza. Ez da ezer ikus-ten. Illargian ote al gaude? Edo Igaratzako desertuan?

Nola jetxi? Zer egin? Ez al naiz zulo batera eroriko? Zer kezka ta bildurra! Izadia asarratzen danian ikusten da garbi gure aulkera!

Kale zuloan zerbait gera... mendi tontorrean, dena illuntzen da-nian, ezer ez!

Aizearen txistu zorrotzak bildurra ematen du... sorgiñak ote? Ez al zaigu Izaskungo Ama Birjiñaren irudia agertuko, Arantzatzun bezela?

Zergatik ez? Fedearekin, dena lortu leike...

Ebia asten du. Izoztuta nago ta ala ere ez naiz mugitzen. Minu-tuak oso aztun ta luzeak egiten zaizkit. Zer ote da, orduan, Eter-nidadea?

Bañan, Jainkoari eskerrak, pizkanaka pizkanaka, ba dator be-rriz Argia, Argi alai, eder, pozgarria...

Zer lasaitasuna! Argia Uzturren!

Ta Argiarekin, Bizia, margo politikak, ikuskizun paregabeak! «Ar-gia Uzturren»... Nobela motx batentzat izen egokia. Artzaitxo bat, Ama-Birjiña, agerketa. Lenbizi ekaitza, gero Argia, bizian, bezela.

Ta urrea ere zergatik ez Uzturreko arkaitzetan?

Ba noa Tolosa aldera, korrika korrika. Agur Uzturre munduko mendirik politena! Laister ikusiko det txiki ta xarmanta, Izaskungo Eliza txuria!

Matxin, Udaberri 1973.

«Argizariak zelütik, argitzen dizü eijerki». (Ertizka)

